

zumaiara

13. zenbakia • 2011ko otsaila

ZU
udalaldizkaria



Zumaiko Udala



Parte hartzeko
kultura errotuz



Herritarren eta Zumiako Udalaren arteko komunikazio zubiak eraikitzeko asmoarekin abian jarri diren parte hartzean oinarritutako prozesuak

aurkibidea

2 Ludoteka

3 Inkesta

4 Udala zuzenean / Fototeka

5 Denon herri kontuak

6 Motxian

8 Prozesuak

12 Euskara Plana Udalean

13 Berdintasun Plana

14 Uxategia musika taldeentzat

15 Herri baratza ekologikoak

16 Eraikitzen

16 Alderdien iritziak

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaiako Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Zumaiako Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 4.500 ale
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; ludoteka



Zumaiako Ludoteka herriko 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxo guztientzat zabalik dago. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 19:30etara bitartean, irekita egoten da, Itsas Kiroldegiaren eraikinean. Eguneroko programaketaren barruan, umeekin jolasak eta eskulanak lantzen dituzte, besteak beste. Horrez gain, ordea, umeekin irteerak, jostailu mailegutza, guraso eskolak, festak, udalekuak... ere antolatzen dituzte.

Haurrak Ludotekan apuntatzeko ohiko epea irailaren bukaeran eta urriaren hasieran izaten da, baina urte osoan eman daiteke izena. Urteko kuota ordaindu behar izaten du haurrak zerbitzu hori erabiltzeagatik. Ludotekarekin harremanetan jartzeko telefonoa 943 14 32 64 da, eta posta elektronikoa, berriz, ludoteka@zumaia.net.

La Ludoteka de Zumaia esta abierto a todos los niños y niñas de entre 6 y 12 años. Permanece abierto de lunes a viernes desde las 17:00 hasta las 19:30. En la programación diaria suelen hacer manualidades y juegos con los niños, entre otras actividades.

Pero, además, realizan salidas con los niños, préstamo de juguetes, organizan la escuela para padres, fiestas, colonias...

Berdintasuna lortzen ari garela uste al duzu?



Rosa Mata Garate

“Berdintasunaren kontzeptua bera ez zait gehiegi gustatzen niri. Inoiz ez gara berdinak izango, izatez ezberdinak garelako. Hala ere, eskubideen berdintasuna lortzeko ari gara lanean, eta tinko segitu behar dugu horretan. Hala ere, oraindik asko dugu egiteko, eta epe luzea beharko da horretarako”.

A mí no me gusta mucho el termino de la igualdad, porque tenemos que lograr la igualdad en la diferencia. Pero poco a poco estamos logrando la igualdad de derechos y tenemos que seguir en este camino.



Jose Maria Prieto

“Oraindik ere ez dago berdintasunik. Eguneroko albisteetan notizia dira oraindik emakumeenganako erasoak, tratutzarrak eta matxismoa. Oinarrian, gizonetzkoen matxismoak hor segitzen du. Askotan lotsatu eta dena egiten naiz gure generoaz. Hala ere, gazteen artean gauzak aldatuz doaz, bikoteak elkar asko laguntzen dira, etxeko lanak banatzen dituzte...”.

Aún no hay igualdad. Todos los días son noticia las agresiones a mujeres, el maltrato... El machismo de los hombres aún está vivo. Yo a veces me avergüenzo de mi género.



Luis Uranga Zubizarreta

“Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzen ari gara. Nik uste, ordea, gehienbat emakumeek egiten duten esfortzu eta indarragatik dela, eta horregatik ari gara arlo horretan aurrera egiten. Hala ere, eskubideen eta aukeren berdintasuna lortzea guztion lana dela uste dut”.

Poco a poco estamos consiguiendo la igualdad, pero creo que todo es por el esfuerzo que hacen mujeres, y por ellas avanzamos. Pero la igualdad es cuestión de to@s.



Xabin Urbieta

“Ari gara generoen arteko berdintasuna lortzen. Nik uste, berdintasunik ez izatearen kulpak gizonona dela, baina baita zenbait emakumerena ere. Gu matxistak gara, baina gure adineko emakumeak ere bai. Hala ere, gazteen artean ari da aldatzen pentsamolde hori eta kontuak aldatzen ari dira”.

Creo que poco a poco vamos logrando la igualdad. Pero pienso que el no haber logrado la igualdad es culpa de los hombres, pero también de algunas mujeres. Los jóvenes de ahora piensan de otra manera.

udala



giro ederra egiten du. Bidegorrian bizikleta hartuta moilara goaz. Herri polita daukagu. Zumaia aurrera doa eta aurrera jarraitzeko aurrekontuak behar-beharrezkoak dira. Herritarrok parte hartze zuzena izan dugu aurrekontuen idazketan. Ohitura berriak dira, zuzenak. Udalean ordezkaritza duten alderdien eskakizunak betetzeko saiakera ere egin da, aurrekontuek babes zabalena izan dezaten. Ohitura zaharrei ere eusten zaielako. Santa Ageda abestiak entzuten dira diketik. Ohitura zaharrak, ohitura berriak, udalbatzarrak du azken hitza.

hace un tiempo estupendo. Por el bidegorri nos dirigimos hacia el puerto. Mientras pedaleamos nos fijamos en los detalles del bello paisaje que nos rodea. Zumaia aurrera doa y para que siga avanzando es preciso aprobar los Presupuestos. La ciudadanía ha participado directamente en la redacción de los Presupuestos de este año 2011. Se trata de un hábito reciente, la participación ciudadana directa. También se ha procurado dar una respuesta positiva a las demandas de los partidos que cuentan con representación en e Ayuntamiento. Se trata de gobernar mediante el acuerdo. Desde el dique se escuchan las canciones de Santa Ageda. Hábitos nuevos y tradición, el pleno tiene la última palabra.

Fototeka



nolakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzten Zumaia argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiairek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.



Arana familiaren argazki artxiboak utzitako argazkia.

Fotografía cedida por el archivo fotográfico de la familia Arana.

Tasa eta zergen gorabeherak

Aurtengorako irizpide nagusia KPI-a igotzea izan da



Zumaiako Udalak, iazko azaroaren 8ko plenoan onartu zituen 2011ko ordenantza fiskalak, eta, udalbatzarrean erabaki zenari jarraituz, zerga eta tasa gehienetan KPI-a igo da. Zumaiako Udalean, ohiko irizpidea KPI-a igotzea da. Joseba Azpiazu Ogasun Zinegotziak azaldutakoaren arabera, “iaz zerga eta tasak izoztu egin genituen. Iaz KPI-a negatiboa izan zen lehen aldiz, eta tasa eta zergak izoztea erabaki genuen. Aurtun, berriro ere KPI-a igo dugu”. Horretarako 2009ko abuztutik iazko abuztura arteko batezbesteko KPI-a hartzen da erreferentzia gisa (%1, 7 aurtengo kasuan): “Aurtengo irizpide nagusia tasa eta zerga guztiei KPI-a igotzea izan da. Hala ere, bada salbuespenik”. Izan ere, zaborraren tasa %8a igo da.

Zaborraren tasa KPI-a baino gehiago igotzeko arrazoi nagusia, “dagoeneko, Zubietako errauste planta ordaintzen hasi garela da”, adierazi du Azpiazuk, “eta birziklatzen ez badugu, igoera handiagoa etorriko da, Udalek ordaintzen dutena goraka joango delako”.

Hobariak eta penalizazioak

Zerga eta tasek gora egin duten arren, hobariak bere horretan jarraituko dute. Hala, familia ugariak %50eko hobaria izango dute Ondasun Higiezin gainera zergen Bizigune programan izena emanda dauden herritarrek. Famili ugariak ere abantailak izango dituzte zerga horretan: 3 seme-alabako familiek %50 murriztu dezakete zerga; 4 seme-alabakoek %70eko murrizketa eska dezakete; eta 5 seme-alaba edo gehiagokoek % 90ekoa. Babes Ofizialeko Etxebizitzetan bizi direnek, etxea eman eta lehen hiru urteetan eta elbarriek ere zerga eta tasetan abantaila dituzte.

Horiekin batera, uraren, zaborraren eta kiroldegiko tasetan hobariak aplikatu zaizkie familiako kide eta diru-sarreraren arabera zehaztutako zenbait ezaugarri betetzen dituztenei. Beti ere, Gizarte Zerbitzuen sailean laguntza hori emateko bideratzen den dirua gastatzen bada aplikatuko da hobari hori.

Tasa eta zergen ordainketak murrizketak izateko, ezinbestekoa da eskariak epe barruan egitea. Familia ugariak urtarrilaren bukaera arteko epea izan zuten beren eskariak egiteko. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gainera Zergen hobaria izan dezakete elbarriek, ibilgailu historikoetarako edo 25 urteko antzinatasuna duten ibilgailuek eta landa eremurako erabiltzen diren ibilgailuetan. Zerga horretan hobaria eskatzeko epea otsailaren 28an bukatuko da.

Etxebizitza hutsen jabeek ondasun higiezin gainera zergaren %50a ordaindu beharko dute. Hala, iaz martxan jarritako penalizazio bati aurtengoan ere jarraipena eman dio Zumaiako Udalak

Tasa berri bat

Ordenantza berri bat ere ezarri da telefono mugikorrekoko zerbitzua erregulatzeko. Era horretan, telefonia enpresek herrian ezarrita dauden sareak erabili nahi badituzte tasa bat ordaindu beharko dute. Enpresa horiei, sareak erabiltzeko lur azpiko okupazioa kobratuko zaie, eta Udalak 36.148 eurora arte jaso dezake zerga horretatik.

el Ayuntamiento ha hecho pública la ordenanza fiscal reguladora de diversos tributos para el año 2011. El pleno municipal del pasado mes de noviembre aprobó aplicar el IPC a los impuestos tributarios de cara al año que viene. Según señaló el Concejal de Hacienda Joseba Azpiazu, “este año el criterio general ha sido aplicar la subida del IPC. Pero hay excepciones”, aclara. La excepción más clara es el impuesto de la recogida de basura, ya que se le ha aplicado una subida del 8%. “Ya hemos empezado a pagar la planta incineradora de Zubieta, y como no reciclamos la subida será mucho mayor en los próximos años”, aclara Azpiazu.

De acuerdo con el reglamento, obtendrán bonificaciones en ciertas tasas e impuestos las familias numerosas, los vecinos y vecinas de las Viviendas de Protección Oficial y los discapacitados. Para obtener las bonificaciones es imprescindible presentar las solicitudes antes de vencer el plazo.

Jadarreko 2. faseko obrak hasi dira



Abian dira Jadarre auzoko 2. faseko obrak. Obra horien bidez, auzoko ur hornidura berriztatuko da, eta ondorioz, auzo horretako osasungarritasuna hobetuko da. Horrez gain, auzoak dituen irisgarritasun arazoei ere irtenbidea eman, eta auzoa berrurbanizatuko da. Hasi berri diren lan horietan, errepidearen eta mendi-magalaren artean horma bat eraikiko da, eta bi hirigune egokituko dituzte horri esker, pasealeku-behatokia bata eta egoteko gunea bestea.

Bigarren fase hau, lehenengo fasearen atzetik dator. Aurretik egin ziren obretan igogailua jarri zen auzoan; eta, era berean, auzoaren zati bat berritu eta espaloiak zabaldu ziren. Argitegi publikoaren instalazioak, berriz, lurpetik pasatu ziren.

Ya han empezado las obras de la segunda fase del barrio Jadarre. Mediante estas obras se prevé terminar con los problemas de salubridad de ese barrio. En esta segunda fase, también, se preurbanizará el barrio y se adecuará a las normas vigentes de accesibilidad. Con estas obras se construirá un muro entre la ladera del monte y la carretera, de este modo se habilitarán dos espacios urbanos de estancia y paseo-mirador en paralelo al río Narruondo.

San Jose auzoari erantzunez



San Jose kalean eskailera berriak egokitu ditu Zumaiako Udalak. Lehendik eraikita zegoen maldan egokitu dira aipatutako eskailerak, eta San Jose kaleko goiko eremua beheko eremuarekin lotzeko pasabide berria ahalbidetu da era horretan. Exekuzio horrekin hobetu egingo da neurri batean, behintzat, San Jose kaleko irisgarritasuna eta bizilagunek Udalari egin izan dioten eskari bati erantzun ahal izan zaio horrela.

San Jose kaleak gabezia gehiago ere baditu, eta guztiei erantzuna emateko beste maila bateko lanak behar ditu kaleak. Hori horrela, Zumaiako Udalak bertako arazo guztiei irtenbidea emateko plan berezia idaztea onartua du.

En la calle San José ya se han habilitado las nuevas escaleras para comunicar la parte superior de la calle con la inferior. Con esa ejecución se mejorará, en buena medida, la accesibilidad a ese barrio, y se responde a la petición expresa del vecindario.

San José, tiene más carencias, y para dar respuesta a todos los problemas se necesitan obras de otro alcance. Para ello, el Ayuntamiento de Zumaiá está elaborando un plan especial.

Otsailaren 26an izango da Herri Lasterketa



Aurtengorako ere prestatu du Zumaiako Udalak herri lasterketa, aurtengoa XVII. edizioa izango da eta ibilbidean aldaketak izango ditu. Izan ere, lasterketaren ibilbidea Pantxita Etxezarreta eta Axular ibilbideetatik pasatuko da. Proban parte hartu nahi dutenek otsailaren 25a arte www.kirolprobak.com webgunean egin ahalko dute. Egunean bertan, berriz, Itsas Kiroldegian izango da izena emateko aukera.

Umeen proba 16:00etan izango da, eta helduena, berriz, 17:00etatik aurrera. Txikienen izen ematea doan izango da. Helduek aldiz, txip horia dutenek 9 euro ordaindu beharko dute, eta txip alokatua erabili nahi dutenek 11 euro.

El 26 de febrero se celebrará la XVII. edición de la Herri Lasterketa de Zumaia. En esta edición se modificara el recorrido de los participantes, y de este modo los participantes recorrerán las calles Pantxita Etxezarreta y Axular. Los interesados en participar pueden inscribirse hasta la víspera de la carrera en la página web www.kirolproba.com. El mismo día de la competición también habrá un puesto de inscripción. La carrera de las categorías inferiores empezará a las 16:00 y la de las categorías superiores una hora más tarde.

Konposta etxean egiteko ikastaroa



Zumaiako Udalak abenduan jarri zuen abian herritarrak etxean konpostajea egitera animatzeko kanpaina. Kanpainaren hasieratik parte hartu nahi izan zuten herritarrek urtarrilaren 15ean edo 20an izan zuten konposta egiten ikasteko ikastaroa. Lehen saioa euskaraz izan zen; eta, bigarrena, gazteleraz.

Kanpainan parte hartu nahi duenak Zumaiako Udalaren Ingurumen Sailarekin jarri behar du harremanetan, eta han emango zaizkie interesa dutenei kanpainaren inguruko azalpen guztiak. Kanpainan parte hartzen dutenek zaborraren tasan % 20ko beherapena izango dute.

El Ayuntamiento de Zumaia ha puesto en marcha la campaña de compostaje doméstico, para que la ciudadanía de Zumaia se anime a hacer compost en casa. En enero, se realizaron dos cursillos para que las personas interesadas en la campaña aprendieran a hacer compost en casa. El primer cursillo se realizó el 15 de Enero, y el segundo el 20.

Las personas interesadas en sumarse a esta campaña, deben ponerse en contacto con el Departamento de Medioambiente del Ayuntamiento. La participación tiene una bonificación del 20% en la tasa de la basura.

Herritarrekin Zumaia garatzen

Udal Gobernuaren azken hiru urteotako konpromisoa herritarren parte hartzearen bidez Zumaia zumaiarrok nahi bezalakoa egitea izan da

El compromiso del Equipo de Gobierno ha sido construir Zumaia con la colaboración ciudadana; para ello, ha puesto en marcha distintos procesos de participación



herritarren eta Udalaren artean zubiak eraikitzeke helburuarekin hasi zuen gaur egungo Udal Gobernuak legegintzaldia, eta bide horretan aurrera pausoak emanez segitzen du. Herritarren parte hartzea bultzatu eta sustatu nahi izan du Udalak azken hiru urteotan, eta horretarako esparru ezberdinetan, eredu ezberdinetako parte hartze prozesuak abiatu ditu. Betiere, Zumaia zumaiarrok artean eraikitzea helburu izanda.

Arlo bakoitzaren lanketa egiteko modu eraginkorra eta egokiena diseinatu da, eta horrela, herrian politika egiteko beste era bati bidea ireki zaio. Herritarrekin elkarlanean herria eraikitzen segitzea da zentzuzkoena, eta bide hori urratu du Zumaia Udalak: herritarrekin Zumaia hobetzea.

“Hasiera-hasieratik, gure asmoa, herritarren ahotsa entzutea izan da, eta ahal dugun eta dagokigun neurrian eskakizunei erantzuten saiatu gara”,

azaltzen du Iñaki Agirrezabalaga Zumaia Alkateak. Arlo bakoitzari dagokion batzordeetan hartutako erabakiekin soilik Zumaia eraikitzerik ez du nahi izan Udal Gobernu honek, eta horregatik ireki ditu herritarrekin harremanetan egoteko bideak. Udala ez da batzordeetara bakarrik zabaldu, herriko eragile guztiengana zabaldu da.

“Hasieratik, gure asmoa, herritarren ahotsa entzun, eta dagokigun neurrian erantzutea izan da”

lazko urtearekin batera bukatu ziren parte hartzean oinarritutako aurrekontuen prozesua eta Hondakinen Batzorde Herritarren prozesua. Orain, abiatu berria da herriko kultur mugimenduaz hausnartu nahi duen Kudeatuz programa. Programa horren bidez, kulturak datozen urteetan Zumaian hartu nahi duen bidea

zehaztuko da; eta, horretarako, kultur eragileak ezinbestekotzat jotzen ditu Udalak. Prozesu horiez gain, ordea, aurretik ere eskatu zaie herritarrei iritzia gai zehatzen inguruan. Hala nola, bere garaian, San Jose komentuari inguruko proposamen ezberdinak jaso eta horien inguruan eztabaidatzeko bidea egin zuen.

Aurrekontuak hizpide

2011 urteko aurrekontuak osatzeko, hirugarren urtez jarraian, parte hartzean oinarritutako aurrekontuak osatzeko bilerak egin dira herrian. Hiru urteko ibilbideak prozesu horrek duen garrantzia emateko eta prozesuari perspektibarekin begiratzeko aukera ematen du. Era berean, prozesu horien emaitzak egun batetik bestera ez direnez gauzatzen, gaur egun, aurreko prozesuetako emaitzak gauzatuta ikusi, eta baloratzeko aukera du Zumaia Udalak.

“Aurreko urteetako esperientzia izan da kontuan herritarrei behar izan duten informazioa nola zabaldu jakiteko”

Urtez urte gauzak hobetzen joan dira, eta aurtengoan nahiz eta parte hartzaile gutxiago izan, kualitatiboki pauso garrantzitsua

eman du aurrekontuen prozesuak. “Zumaiaiko Udalak aurreko urteetako esperientzia izan du herritarrei behar izan duten informazioa nola zabaldu jakiteko”, azaldu du Andoni Etxaniz Alkateordeak. Herritarrek aurreko urteetan egindako eskariak “modu naturalean eta praktikoa” txertatuz joan da Udala, eta alde horretatik

oso aberasgarria izan da herritarren eskaera eta iradokizunak jasotzea. “Herritarren beharrak Udalaren jardunbidean naturaltasunez txertatu ditugu. Herritarren eskaerei erantzunez egokitu ditugu, adibidez, Txomin Agirre kaia eta Mendaro Marinela kalea”, azaltzen du Andoni Etxanizek Alkateordeak.

el Equipo de Gobierno comenzó la legislatura con el objetivo de fortalecer las vías de comunicación entre el Ayuntamiento de Zumaia y la ciudadanía. Con ese objetivo, en los últimos tres años ha promovido diversos procesos de participación que hacen que la comunicación sea más fluida. Mediante estos procesos se está instaurando en el pueblo un modo renovado de hacer política, con las puertas del Consistorio siempre abiertas a la ciudadanía. Según el Alcalde Iñaki

Agirrezabalaga, “nuestro objetivo ha sido escuchar a la ciudadanía y dar respuesta a sus peticiones según nuestras posibilidades y nuestras responsabilidades”. Este año, por tercera vez consecutiva se ha realizado un proceso de participación en torno a los presupuestos. El camino recorrido durante estos años no ha sido en vano, y la experiencia acumulada ayuda a dar la debida importancia a ese proceso y mirar el futuro con perspectiva.

Este año

Este año, en palabras del Vicealcalde Andoni Etxaniz, “el Ayuntamiento ha tenido en cuenta las experiencias de los procesos anteriores para saber como hacer llegar la información a los participantes”. Según Etxaniz las propuestas de la ciudadanía se incorporan en la agenda del Ayuntamiento de una manera “práctica y natural”. Con las obras de Txomin Agirre y Mendaro Mariñela, por ejemplo, se ha dado respuesta a algunas peticiones.

Elkarrizketak: Prozesuko parte hartzaileak



Jose Manuel Castillo:

“Udala herriari gerturatzeko modu oso egokia dela uste dut”

Zerk bultzatu zintuen prozesuan parte hartzera?

‘Zumaia zu’ aldizkarian irakurri genuen aurrekontuen inguruan prozesua martxan jartzekoa zela Udala. Ni San Jose auzokoa naiz, eta gure auzoa konpontzeko eskatzeko firma bilketa eta guzti egina dugu. Beraz, guretzat aukera ona zela pentsatu genuen, eta ni eta beste bat etorri ginen auzotik bozeramaile gisa.

Zer iruditu zaizu?

Oso interesgarria iruditu zait. Udala

herriari gerturatzeko modu oso egokia dela uste dut.

Zer iruditu zaizu prozesua eramateko modua?

Oso demokratikoa izan da prozesua. Guk, herritarrok, dakigu zein arazo dauden herrian, eta prozesuan geuk jarri ditugu lehentasunak denon eskaerak eta arazoak ikusi ondoren.

Besteen arazoetaz konturatzeko ere bide egiten du prozesuak?

Noski. Ni neu, San Jose auzoko

arazoak azaltzera eta irtenbide bat bilatzeko asmotan joan nintzen; baina, gero, beste proposamen batzuk ere egin nituen nik ikusten ditudan arazoan inguruan.

Zuen auzoko arazoez gain beste arazoak ere ikusi dituzu, beraz?

Bai. Ni postaria naiz, eta jendeak dituen arazoak entzun behar izaten ditut askotan. Horrelako prozesu batean nik besteen arazoak ere jakinarazi ditzaket, denok aberasteko, eta horrela egin dut oraingoan ere.



Ana Arranz:

“Arduraten gaituen gaietaz aritzeko topagune bat edukitzea edozeinentzat da aberasgarria”

Lehen aldia al da parte hartzen duzula?

Aurtengoa, bigarren aldia izan da, iaz ere hartu bainuen parte prozesu honetan.

Zer dela-eta animatu zinen?

Hirigintza sailetik gonbidatu gintuzten herrian arlo horretan lanean dihardun batzuk, eta horrela animatu nintzen. Eskertzekoa da gurekin gogoratu eta gonbidapena pasatzea.

Zer iruditu zaizu prozesua aurrera eramateko modua?

Nik parte hartu dudan atalean prozesua asko hobetu daitekeela uste dut. Nik uste horrelako prozesuek jarraipena behar dutela.

Zu arkitektoa izanik, gehienbat hirigintzako gaietaz arduratuta joango zinen. Prozesuaren bidez, herriko beste zenbat norbanako zein eragileren eskaera eta arazoak entzun eta ezagutzeko aukera izan duzu. Hori aberasgarria izango da ezta?

Arduraten gaituen gaietaz aritzeko topagune bat edukitzea edozeinentzat da aberasgarria.

Zer iruditu zaizu Udaleko politikari eta teknikoen parte hartzea?

Eskasa. Parte hartu dute, bai, baina nire ustez teknikoen eta politikoen parte hartzea handiagoa beharko luke. Denon arteko elkarlana sustatzeko.

Prozesuan zerbait aldatuko al zenuke?

Bai. Nire ustez, horrelako prozesuak oso ongi daude, baina urte osoko jarraipena beharko lukete. Nire kasuan, hirigintzako gairen bat dagoenean, bilera bat deitu beharko lukete arlo horretan interesa dugunok azaltzeko. Bilera horien bidez informazioa jaso eta gure ekarpenak egitea izango zen helburua. Horretarako, ordea, jarraipena eman behar zaio prozesuei.

Berriro ere animatuko al zinateke horrelako prozesu batean parte hartzea?

Noski, herritarrok benetako parte hartzea lortuko bagenu oso onuragarria izan liteke.



Laura Ordoñez:

“Udaleko eta herriko errealitateaz eta beste herritarrek dituzten arazoetaz jabetzeko modu polita izan da”

Lehen aldia al da horrelako prozesu batean parte hartu duzula?

Ez nintzen inoiz joan horrelako bileretara. Ni Arrangoleta Haurreskolako gurasoa naiz, eta gutuna bidali ziguten. Arrangoletan lekuarekin ditugun arazoak ikusita animatu nintzen prozesuan parte hartzera.

Azaroa azaldu zenuten, eta jaso al duzue erantzunik?

Bai. Udalak nahiz eta ez izan eskumenik gure arazoari aurre egiteko, jakin dugu arazoa konpontzeko pausoak

eman dituela bere aldetik, eta gustura gaude eman diguten erantzunarekin.

Zer moduzko esperientzia iruditu zaizu prozesuan parte hartzea?

Oso interesgarria izan da. Udaleko eta herriko errealitateaz eta beste herritarrek dituzten arazoetaz jabetzeko modu polita izan da. Ez nekien horrelako prozesuak herrian martxan zeudenik

Zer iruditu zaizu prozesua aurrera eramateko modua?

Modu oso egokia iruditu zait. Hala ere, lehenengo bileretara joatea ezinbestekoa da gero jarraipena egiteko, eta bilera horietarako deialdiei herritarrek erantzutea oso garrantzitsua da.

Zer iruditu zaizu udaleko teknikoen prozesuan parte hartzea?

Oso ondo dago teknikarietako parte hartzea prozesu honetan. Gure kezka eta arazo guztiak entzun dituzte, eta gero behar genuena azaldu eta gure galderari erantzuna ematen saiatu dira.

Lehentasunezko bost proposamen

1. San Jose auzoko hiritartzeko lanak. 2011. urtean, auzo horretarako plan berezia egingo da. Ondoren, urbanizazio proiektua idatziko da. Horretarako, Udal Gobernuaren aurrekontuetan diru partida zehaztu da.

2. Egoera ekonomiko larrian dauden familiei egoki erantzutea. Bizi dugun krisi egoeran egiten dituzten diru-laguntza eskaerei aurre egitea lehentasuna da. Horretarako, Gizarte Zerbitzuetako lan-gile kopurua egokitu da.

3. Kultur etxe berria / Alondiga. Kultur baliabideei behar bezalako erabilera emateko eskatzen dute eragileek. Zu-

maiako Udalak, eragileekin elkarlanean osatu nahi du kultura plana herriko kultur baliabideak kultur eragileekin elkarlanean adostu nahi baita.

4. Frontoi luzea eraikitzea. Herritarrek, behin eta berriz, frontoia eskatzen dute, eta Zumaia Udalak, orain artean bezala, proiektuak aurrera egiteko behar diren indarrak eta baliabideak jarriko ditu.

5. Gazteria: Gaztegunea larunbat arratsetan irekitzea. Gaur egun, Gaztegunea larunbat goizetan irekita izaten da, eta Udala larunbata arratsaldetan irekita izateko ahaleginak egiten ari da. Hilabete

gutxiren buruan larunbata arratsaldeetan herriko gazteak Gaztegunean egoteko aukera izango dute.

Propuestas prioritarias

1- La reurbanización de la calle San José.

2- Responder a las familias que tengan mayor necesidad adecuadamente.

3- La nueva casa de cultura / Alondiga.

4- La construcción del nuevo frontón.

5- Juventud: abrir el Gaztegunea los sábados por la tarde.

Hondakinen Batzorde Herritarra, prozesu ezberdina



Maria Luisa Manzidor: "Jendeak ez du horrelako prozesuetan parte hartzen, baina gero ez dezagun esan ez dugula aukerarik"

Gaur egun hondakinen kudeaketa ezberdinen inguruan dagoen eztabaida ikusita, Zumaia Udalak iazko ekainean Hondakinen Batzorde Herritarra osatzeko lehen pausoak eman zituen. Batzorde hori eratzearen helburu nagusia, herritarrek hondakinak kudeatzeko ereduen inguruan informatzea izan da. Prozesu parte hartzaile horrek, dinamika erabat ezberdina izan du. Izan ere, Udalak herritarrei deialdia zabaldu zien; eta, ondoren, prozesua gauzatzeko bitartekoak jarri zituen. Hortik aurrera, zerren inguruan eta nola informatu, prozesuaren nondik

norako guztiak osatutako batzordeak erabaki ditu.

Maria Luisa Manzidor Hondakinen Batzorde Herritarreko kide izan da, eta prozesua "gustatu" zai. Manzidorrek kalean jakin zuen prozesu hori hastekoa zela; ondoren, lantokian jaso zuten prozesuan parte hartzeko gonbita: "Ni Maria eta Jose ikastetxeko irakaslea naiz, eta han ere jaso genuen Udala martxan jartzera zihoan batzorde horren berri", adierazi du. Eta horrelaxe animatu zen Manzidor prozesuan parte hartzera.

Sei hilabetetan, 15 lagunek osatutako batzorde herritarrek egindako egitarauaren arabera, hondakinen kudeaketa ezberdinen inguruko informazioa jaso dute. Hilean behin


elkartu dira, gaia aztertu, ikasi eta gaiaren inguruan eztabaidatzeko. "Prozesua asko gustatu zait niri, baina hondakinen arazoa bezalako gai garrantzitsu batentzat, herritarrek erantzun txikia eman diogula uste dut", adierazi du. Batzordekideak gustura izan dira prozesuak iraun duen bitartean: "Saio guztiak luzatu egin dira, eta hori gustura egon garen seinale da. Hondakinen Batzorde Herritarrean lagun gutxi baina oso ezberdinak bildu gara, eta talde polita sortu dugu", dio. Hala ere, jende gehiago nola animatu pentsatu beharra dagoela uste du: "Jendeak ez du horrelako prozesuetan parte hartzen, baina gero ez dezagun esan ez dugula aukerarik. Baditugu, baina ez ditugu aprobetxatzen", azaltzen du Manzidorrek.

Jose Manuel Castillo:
"Es un modo muy valido para acercar el Ayuntamiento al pueblo"

Ana Arranz:
"Es muy enriquecedor tener un espacio para trabajar en los ámbitos que nos interesan"

Maria Luisa Manzidor:
"La gente no participa en este tipo de procesos, pero que no digan que no tenemos ello"

Udalean euskara indartzeko plana



azken urteotan egindako lanari esker, Zumaiaiko Udalean euskara da lanerako eta zerbitzua emateko hizkuntza nagusia, baina alor batzuetan oraindik ere badago zeregina euskarak presentzia handiagoa izan dezan. Hori horrela, eta Udaleko eginkizun guztietan euskararen erabilera bultzatzeko eta lehentasuna emateko, 2012ra bitarteko erabilera plana onartu zen 2010eko abenduaren 30eko plenoan. “Plan hori gehienbat Udal barrurako egindakoa da. Baina plan horren bidez, Udalak bere harreman guztiak euskara hutsean izatea lortu nahi da”, azaldu du Nerea Epelde Udalaren Euskara Batzordeburuak.

2010. urtean, UEMA (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea) erakundearekin elkarlanean, Zumaiaiko Udalean euskarak duen egoera aztertu zuen Udalak, eta diagnostiko horren araberrako plana landu zuten. Plan horrek lau helburu nagusi ditu:

- Udaleko langileek herritarrei zerbitzua euskaraz ematea, ahoz eta idatziz.
- Beste administrazioekin ahoz eta idatziz euskaraz egitea.
- Euskara izatea Udal barruan lan egiteko hizkuntza.

- Hizkuntza irizpideak zehaztea, erabilera nolabait arautzeko.

Helburu nagusiak horiek izanda ere, helburu zehatzagoak jarri dira esparru bakoitzerako: idatziak, itzulpenak, ikastaroak, informatika, liburuak, kontratuak, etab. Lehendik ere bazegoen 2012ra arteko erabilera plan bat, baina 2009an UEMAn sartzeak aukera eman du azterketa zehatzagoa egin eta helburu handiagoak jartzeko. “UEMAk abiatutako erabilera plana martxan jartzeaz gain, jarraipena ere egingo zaio egiten den lanari. Horrela, 2012rako jarritako helburuak lortzeko langileei eman beharreko pausoak emateko eskatuko zaie”, dio Epeldek.

Herritarren eta zinegotzien garrantzia

Langileen aldetik 10etik 9k egiaztatuta du dagokion hizkuntza eskakizuna edo profila, eta gai da zerbitzua euskaraz emateko. Horrez gain, ordea, garrantzitsua da herritarrek ere eskaerak euskaraz egitea. 2010ean egindako neurketaren arabera, sarrera erregistroan zumaiarren %71k eskabideak euskaraz aurkeztu zituen.

Herritarren “akuilua” ondo etortzen da Udalak euskaraz erantzun dezan.

Batzordeetan eta bestelako bileretan euskara gehiago erabiltzeko eta lanak bikoiztu beharrez ez izateko, bestalde, funtsezkoa da ordezkari politikoek euskaraz gutxieneko maila bat izatea. Horregatik, datozen hauteskundeei begira gonbidapena egin zitzaien alderdiei iaz, zerrendak osatzeko orduan hautagai euskaldunak edo gutxienez ulertzeko gai direnak jar ditzaten.

el euskera es la lengua principal del Ayuntamiento de Zumaia, por que el euskera es la lengua vehicular del Ayuntamiento de Zumaia, por el esfuerzo que se ha hecho en los últimos años. Pero aún, hay ámbitos en los que se puede mejorar y aumentar su uso. En este sentido, el Ayuntamiento ha puesto en marcha un plan para que el uso del euskera se amplíe en diversos ámbitos. Según la concejala de euskera del Ayuntamiento Nerea Epelde, “el plan es para los técnicos del Ayuntamiento, pero el objetivo es que el ayuntamiento se comuniquen en todos sus ámbitos en euskera”.



“Plana osatzeko garaian herritarren parte-hartzea bultzatu dugu eta plana garatzeko garaian ere horrela izango da”

Karmele Gomez

Berdintasun eta Gaztedia teknikaria

Karmele Gomez duela hilabete batzuetatik, Zumaia Udaleko Berdintasun eta Gaztedia teknikaria da, eta berdintasun plana egiten eta aurrera eramaten daramatza hilabete horiek.

Iaz onartu zen Zumaia I. Berdintasun Plana. Aurretik, ordea, diagnosia egin zenuten. Zein zen Zumaia egoera?

Diagnosia 2009an egin zen Zumaia emakumeen eta gizonen desberdintasunak aztertzea eta argitaratzea helburu izan duen ikerketa baten ondorioz. Emakumeen eta gizonen egoeraren eta eguneroko bizitzako hainbat gunetan dauden ezberdintasunen analisia helburu konplexua da. Aztertutako errealitatea zenbait geruza eta ñabarduraz osatuta dago, gainera, eremu desberdinei buruzko informazioa maiz eskasa izaten da; eta dagoenean, zenbaitetan, ez da sexuaren arabera bereizita egoten.

Testuinguru horretan eta ahalik eta informazio gehien biltzeko asmoz hainbat eragileren parte-hartzea ahalbideratu duen prozesua diseinatu da. Era berean, Zumaia egoeraren ikuspegi zabala izateko informatzaileen heterogeneotasuna bilatu da. Lan hori egiterakoan kontuan izan dira izaera kuantitatiboak duten aldagaiak zein izaera kualitatiboak dutenak ere. Ondorio horietan oinarrituz, Zumaia Berdintasun Plana garatzeko baliagarriak izan daitezkeen iradokizunen katalogoa sortu da. Ildo horretatik, diagnosia etorkizuneko esku-hartze eremuak definitzeko egin den aurrera pauso handia dugu.

Plana martxan jartzeko lehen pausoak zein izan dira?

Lehen pausoa bi egitura eratzea izan da; alde batetik, mahai teknikoak, eta, bestetik, mahai politikoa. Mahai teknikoak Udal barruko teknikariek osatuko lukete eta mahai politikoa, berdintasunari buruzko Udal barruan erantzukizun politikoa dutenek. Hori, zertarako? Batez ere beraiekin zeharkako lana egiteko, hau da, kiroletan, kulturean, gizarteratzean, hirigintzan eta hainbat arlotan genero ikuspegia txertatzeko. Genero ikuspegia txertatzea ez da datuak sexuaren arabera jasotzea bakarrik, baizik eta datu horien azterketa sakona egin eta ondorioak atera behar dira.

Osatzeko garaian, herritarren parte-hartzea bultzatu duzue, plana gauzatzekoan ere horrela izango al da?

Plana osatzeko garaian herritarren parte-hartzea bultzatu dugu, bilera irekiak eginez herritarrei zuzenduta, arloz arlo Zumaia benetako egoera jaso nahian. Plana garatzeko garaian ere horrela izango da; eta, gainera, esan beharra dago, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela.

Herritarrek nola har dezakete parte Berdintasun Planean?

Horretarako Berdintasun Foroa dago. Berdintasun Planaren ezarpenean, jarraipenean eta ebaluaketan beharrezkoa da Zumaia emakumeen edota herritarren parte-hartzea bermatu eta bideratuko duen horrelako egitura sortzea. Berdintasuna bultzatzeko lan

egiten dutenen partaidetzarako gunea da hori.

Hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da Zumaiarentzat. Zein dira erronka nagusiak?

Planaren barruan helburu asko daude bai Udal barruan garatzeko, baita Udaletik kanpo garatzeko ere. Udal barruan erronka nagusia langileen berdintasunari buruzko formazioa da. Nahiz eta langileen sentiberatasunean desberdintasunak antzeman daitezkeen, berdintasunaren onarpena handia da. Halere, genero ikuspegia eremu ezberdinetan txertatzea posible egingo duen eta erreminta teoriko eta praktikoak eskainiko dizkien langileen formazioa sustatzeko beharra dago. Planaren egiturazko 4 ardatz estrategiko landuko dira: genero mainstreaming-a, emakumeen ahalduntzea, lana eta familia bateratzea eta erantzunkidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeria (tratu txarren protokoloa egingo da aurtan).

e l Ayuntamiento de Zumaia aprobó en el pleno del 28 de octubre el I. Plan de Igualdad de Zumaia con unanimidad.

Desde entonces, Karmele Gomez Técnica de Igualdad y Juventud del Ayuntamiento está volcada en el desarrollo del plan. Al elaborar el diagnóstico se quiso contar con la colaboración ciudadana para que el resultado fuera lo más real posible. Según Gomez, “para llevar a cabo el plan también queremos impulsar la colaboración ciudadana. Para ello está el Foro de Igualdad”, asegura.

Uxategia egokituko du Udalak musika taldeentzat



herriko musika taldeek beraien entsegu edota saioak egin ahal izateko azpiegitura berria izango dute aurki. Izan ere, Uxategia izenaz ezagutzen den eraikina berriro egingo du Udalak datozen hilabeteotan. Eraikina musika taldeen entseguetarako egokitzea da asmoa, eta goiko solairua izango da berrituko dena. Orain artean, Ubillos atzealdeko lokaletan egiten zituzten herriko taldeek beraien entseguak eta aurki eraikin egokitan arituko dira.

Iñaki Agirrezabala Alkate eta Kultura zinegotziaren arabera, “musika taldeek aspaldidanik egin izan dute eskaera.

Izan ere, talde asko daude Zumaian, eta eskaera guztiak ezin ziren ase aurreko lokalarekin”, azaltzen du. “Elkarbizitza arazoak ere sortu izan ditu lokalak behar bezala egokituta ez egoteak” gaineratu du Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotziak. Obra horien bidez, herriko musika taldeei Udaletik behar bezalako baliabideak eskaintzea izango da helburua.

Guztira, sei lokal prestatuko dira, eta horiekin batera, grabazioetarako aretoa ere izango du eraikin eraberrituak. Solairu berean egokituko dira komun berriak ere. Lokalak araudietara egokituko dira eta intsonorizatu egingo dituzte, bizilagunen mesederako.

“Aspaldiko eskaera bati erantzuteko aukera dugu orain, eta musikariek behar bezalako azpiegitura izango dute”

Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, “aspaldiko eskaera bati erantzuteko aukera izango dugu orain. Eta sormenean dabiltzan Zumaiaiko musikariek behar bezalako azpiegitura izango dute. Helburua hurbil dago eta lanak laster hasikodira. Bidea nahi bainoluzeagoa izan den arren, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektua zehazterako orduan lagundu diguten musikariei; jarrera ulerkorra izan dutelako eta proiektua lantzerakoan erakutsi duten pazientziarengatik”.

Los grupos musicales de Zumaia pronto tendrán las infraestructuras necesarias para hacer sus ensayos o reunirse, ya que el Ayuntamiento adecuará para ellos el edificio conocido como Uxategia, y allí se acondicionarán 6 locales. Se

renovará la planta superior para que los grupos musicales del pueblo tengan un sitio apropiado para sus ensayos. Ahora, ensayan en la parte trasera del edificio de Ubillos. Según el Concejal de Urbanismo, Andoni Etxaniz, “hoy en día, los locales no sacian todos los

requisitos de los grupos, y además, el número de grupos musicales en Zumaia se ha incrementado. En ese sentido, se evitarán los actuales problemas convivencia, ya que los locales de hoy en día no están adecuados como es debido”.

Produkzio ekologikoa sustatuz



Irudian, Marianton pakean baratza ekologikoa atontzeko egokitutako gunea.

Zumaiaiko Udala herri-baratze ekologikoa prestatzen ari da Marianton parkean. Baratze didaktikoa izango da, eta Ingurumen Hezkuntzarako erabiliko da. Zumaiaiko Udalak herritarrei produkzio ekologikoaren inguruko informazioa zabaldu nahi die baratza horien bidez. Izan ere, baratze ekologikoa Ingurumen Hezkuntzarako “baliabide bikaina” dela uste du Udalak, eta herritarrei nahiz ikastetxeetako ikasleei “gure natur ingurunea ezagutzeko” eta “esperientzia

“Herritarrei nahiz ikasleei gure natur ingurunea ezagutzeko eta esperientzia ugari bizitzeko balio izango die”

ugari bizitzeko” balio izango die. Baratzearen egitura bukatuta dago, eta udaberrian sartuko dituzte garai horretarako egokiak diren barazkiak. Baratzea edonorentzat irekita egongo da, ez baitu

hesirik izango. Baratzean barazkian sartutakoan, herrian baratzea dutenei eta herriko ikastetxeetako ikasleei, ikastaroak emango zaizkie produktuak modu ekologikoan nola landu daitezkeen erakusteko. Era horretara, unitate didaktiko baten bitartez, baratzetako bizitza erritmoa zein den jakinarazi eta garaian garaiko produktuak ezagutzeko aukera izango dute.

Marianton parkeko baratzetan haziko diren produktuak, herriko ikastetxe eta zahar egoitzetan banatuko dira.

Hurrengo urratsa

Behin herri-baratze ekologikoa laster erabiltzen hasteko moduan izango dela ikusita, Udala, dagoeneko, ari da hurrengo urratsa lantzen. Pauso hori, Udalak dituen lurak aztertu, eta lur horiek herritarrek lantzeko modukoak al diren jakitea da. Behin hori jakinda, zenbat baratza egin daitezkeen eta herrian zenbat herritarrek duten

el Ayuntamiento de Zumaia ha construido un huerto ecológico municipal en el Parque Marianton. Este huerto tiene un fin didáctico, ya que se utilizará para la formación medioambiental de la ciudadanía. El Ayuntamiento cree que este huerto es “un magnífico instrumento” para la formación medioambiental y para que los más jóvenes puedan “conocer de nuestro entorno natural”. En un futuro se prevé organizar sesiones didácticas tanto para los centros escolares como para aquellas personas interesadas en este tema.

El huerto ecológico contará con hortalizas de la temporada en primavera, y la huerta estará abierta para todos ya que no estará vallado. En un futuro, se prevé ampliar el proyecto para incorporar huertos comunales.

Kirol elkarteen beharrak bermatuz

Itsas kiroldegi ondoan 1.000 metro koadroko lokala erosi eta egokitu du Udalak zenbait itsas kirol elkarterentzat



Zenbait kirol elkarteek beren kirolerako beharrezkoak dituzten ibilgailu eta ontziak gordetzeko zuten leku faltari irtenbidea emateko, Udalak lokal berria erosi eta egokitu du Itsas kiroldegiaren ondoan. 1.000 metro koadroko lokala da, eta bertan gordetzen dituzte beren trasteak, momentuz Zumaiako Arraun Elkartekoek eta Itsasgain Piragua Elkartekoek. Bi elkarte horietaz gain, Udalak berak ere badu lokaleko zati txiki bat biltegi gisa erabiltzeko. Gaur gaurkoz, bi talde horiek erabiltzen dute gehienbat lokala, nahiz eta belakoek ere bertan sartu beren ontziak (Udalaren zatian gordetzen dituzte). Hala ere, Udala lokal hori elkarte gehiagok erabiltzeko modua aztertzen ari da.

Arraun Elkartekoak gustura dira Itsas Kiroldegiaren ondoan Udalak utzitako lokalarekin: "Guk ezinbestekoa genuen gure kirol materiala gordetzeko lekua. Orain arte erabili izan dugun lokalean gauza gehiegi ditugu gordeta, eta

horrela, material guztia lasaiago gorde dezakegu", azaldu du Luis Mari Goikoetxea Arraun Elkarteko Lehendakariak.

Lokala egokitzeaz gain, sarrera ere berritu eta beharretara egokitu egin da. "Sarrera primeran jarri dute. Guretzat behintzat oso egoki dago. Igandetan-eta estropadak bukatutakoan nekatuta etortzen gara oso. Sarrera horrekin, zuzenean sartu dezakegu dena, eta hantxe utzi hurrengo egunean joan eta txukuntzeko", dio Goikoetxeak.

Itsasgain Piragua Elkartekoak ere Itsas Kiroldegiaren ondoan gordetzen dituzte orain beraien karroak: "Leku komodoa da guretzat. Guk bi karro gordetzen ditugu orain lokal horretan", azaltzen du Jose Antonio Gorostolak. Hala ere, piragua taldekoen arazo bakarra ez omen da materiala gordetzeko espazioarena. Baina Udalarekin ari dira hizketan beraien arazoei irtenbidea bilatzeko, eta momentuz, bide onetik doaz.

el Ayuntamiento de Zumaia ha comprado y adecuado un local de 1.000 metros cuadrados para que lo puedan usar distintos grupos deportivos. Con esta ejecución, se ha querido responder a una petición realizada por algunos clubes al Consistorio. Hoy en día el local lo usan el club de Remo y el de piragua, y tiene también una zona para que el Ayuntamiento lo use como almacén.

El Club de Remo de Zumaia está contento con el local adecuado por el Ayuntamiento: "Nosotros necesitábamos una nave, porque ya no teníamos espacio en el local antiguo. Con este nuevo almacén podemos guardar nuestro material con más comodidad", asegura Luis Mari Goikotxea Presidente del Club de Remo.



hiru hilabete geratzen dira Udal eta Foru hauteskundeetarako. Lau urte ia-ia Eusko Elkartasunak eta ezker abertzaleak elkar hartu zutela Zumaiaiko Udal Gobernu bereganatzeko. Lau urtetako balantze orokorra egiten hasteko garaia iritsi da. Nondik hasi? Urte hauetan saiatu gara udal diruen kudeaketari buruzko analisia plazaratzen. Oraingoan, xehetasunetan sartu gabe, zera esan dezakegu: 2007an Zumaiaiko herri-kontuak batezbesteko onenatarikoak ziren. Egungo egoeratik abiatuz, berriz, BEHIN ETA BERRIZ hartutako erabaki okerren ondorioz, herriak etorkizunari heltzeko zailtasun izugarriak izango ditu.

Gobernua osatu duten EAK eta ANVek elkarrekin sinatu zuten GOBERNU AKORDIOAN honelakoak jasotzen ziren: *“Udal demokratiko eta irekia bultzatuko dugu. Herri galdeketa egingo. Udal batzorde irekiak eta gardenak, edonork parte hartzekoak. Udal ordezkari guztien elkarlana bultzatuko dugu”*. Hitz dotoreak...

Baina udal batzordeak ez dira inoiz ireki. Ez da galdeketa bat bera ere egin. Hasieratik esan zitzaigun EAJrekin ez zutela ezertarako kontatzen. Gure kexa etengabea izan da informazio faltaren aldetik: diktamenik gabeko erabakiak, ez-ohikotasuna ohikotasunez erabiltzea, eta abar luze bat. Eta azken gehiegikeria: batzordeak goizetara pasatu dituzte. Bestela ere beti erraza ez izanik, hemendik aurrera ia ezinezkoa egingo zaigu udal batzordeetara joatea. Esaldi potoloak, asmo hutsalak: eskerrak intentzio onez beteta aurkeztu zitzaizkigun, bestela... zer izango ote!

Ez gardentasunik, ez irekitasunik, ez begirunerik.

Baina azken egunotan ikusi duguna askoz ere okerragoa da. Beste behin ere: MANIPULAZIOA, GEZUR BELTZA eta IRAINA. Hauteskundeak hurreratzen ari direla eta, herritarren aurrean aurkezteko onik ezer gutxi duenaren irtenbide eskasa.



aspalditik esaten genuen, eta, orain, gainera, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak arrazoia eman digu. EAJ/PNV alderdiak urte askotan diru publikoa interes pribatuen esku jarri zuen Zumaian, legea bete gabe, eta Esarbe enpresari 4.000.000 euro eman zizkion. Zumaiaiko Udalaren egoera zorrotz aztertu du Epaitegiak eta hain eredugarria omen zen EAJren kudeaketa lotsagarri jarri du. Argi eta garbi esan du EAJk prozedura ilegalak erabili zituela Esarberen alde.

Azken legealdian, PNVk behin eta berriz adierazi digu ez zegoela ados guk Zumaia Lantzenerako proposatzen genuen kudeaketa--eredu berriarekin, bere horretan dena ondo zegoelako (“Dena nahasten ari zarete”, “Zertarako aldatu ondo funtzionatzen duena?”...). Orain, Epaitegiak zer dioen ikusita, ez dute esaten kudeaketa hura eredugarria zenik, baizik eta guztien onespenerarekin hartzen zirela erabakiak, guztiok garelako errudun, alegia. Orain, gogoz kontra bada ere, aitortu dute kontratazio ilegalak egin zituztela, baina “eredugarria” zen beraien gestioa orain guztion “hanka-sartzea” omen da.

Nork proposatu zion Zumaia Lantzenen Administrazio Kontseiluari Esarbe kontratatzea? Orduko alkateak, Ricardo Peña jaunak. Zeinena da proposamen hura legez kanpokoa izatearen ardura? Proposamena egin zuenarena. Non egiten du lan proposamen hura egin zuenak, orduko alkateak? Esarben. Zein alderditakoa zen orduko alkatea? PNVkoa. Zein alderdik babestu zuen gestio--eredu hura alkatetzatik? PNVk.

Kanpainan omen gaude, eta horregatik atera omen dugu orain gaia. Nork bidali zuen Herri Kontuen Euskal Epaitegia Zumaiaiko Udalera? Legebiltzarreko EAJ-PNVren taldeak. Noiz argitaratu du Kontuen Epaitegiak bere txostena? 2010eko abenduan. Beraiek eskatu egiteko lana, eta orain lana beraien kontra, alajaina. Pena bakarra daukagu: Epaitegiak 2008ko kontuak besterik ez fiskalizatu izana, eta ez aurreko urteetakoak!

Zumaiar asko haserre daude PNVrekin, eta badute arrazoirik: guztion diruarekin jolastu dute batzuek, esku pribatuetara bideratu dituzte lau milioi euro (600 milioi pezeta baino gehiago!). 4 milioi arrazoi ditugu haserre egoteko.



Sorprendidos. Así es como están algunos. Y es que más allá de quienes en estos tres años, y llevados por un fuego interior incontrolado, han azuzado en los mentideros, la realidad se ha impuesto.

La última gran obra, la remodelación del puente, así como el de las calles Mendaro Mariñela y Txomin Agirre, es un claro exponente del trabajo realizado en inversiones, así como del talante dialogador que hemos mostrado con otras administraciones competentes en el ámbito, y gracias al cual se ha podido materializar. Como en toda obra, habrá aspectos que no gusten del todo a tod@s, pero nadie pone en duda, que lo realizado mejora sustancialmente lo que había. La nueva accesibilidad del puente, la reordenación de los aparcamientos y la prioridad a los viandantes y el carril bici, hacen que el lugar sea más atractivo.

Pero no sólo hemos hecho inversiones en el centro: la urbanización del ambulatorio, mejorando el entorno; la cimentación de la plazoleta del Instituto, posibilitando así, más plazas de aparcamiento; el nuevo depósito de agua del barrio de Artadi, así como la traída de aguas de dicho depósito al barrio de Oikia y la extensión del saneamiento; la construcción de la nueva Haurreskola; la ejecución de un nuevo puente sobre el río Narrondo, que une el barrio de Basadi con las casas de Bonbilo y el colegio Maria eta Jose; la reurbanización de Jadarre, adaptándose a los nuevos criterios de accesibilidad; la finalización después de años, de las escaleras que unen la parte baja y alta del barrio San José, así como la redacción del Plan Especial de dicho barrio, que dará pie a una futura y necesaria reurbanización. Estas, junto con otras inversiones de menor calado y que están a la vista de todos, son un claro exponente del trabajo y la filosofía con la que trabajamos.

Sin embargo, el trabajo continúa. Pronto, otra nueva inversión dará sus frutos. La nueva Alondiga dará servicio a quienes se muevan en el ámbito cultural. Un servicio en el centro, dispondrá de un ascensor público para quienes quieran subir de la calle Erribera a la calle Mari. Para finalizar, la maraña jurídico-técnica en la que nos encontramos para ejecutar el frontón, ya lo estamos desenmarañando. Esperemos que en la siguiente recapitulación de inversiones realizadas, se encuentre el frontón. Aquí también, la realidad se impone a la mentira. Pese a quien le pese.



azken hilabeteotan prozesu parte hartzeak bultzatu ditu Udal honek, bat aurrekontuena eta bestea hondakinena. Zaborren gaia jorrazteko Elhuyar enpresa talde dinamizatzaile modura kontratatu dugu. Guregan eragin zuzena duen gai bat da. Zaborren arazoaz ikasteko hainbat teknikari ekarri dira. “Tailer” horietan zaborra kudeatzeko era desberdinak eta irtenbide zuzenak Zumaiarako landu dira. Parte hartu duen jendeak interes asko jarri du eta asko eztabaidatu ondoren, modurik eraginkorrena, gaur egun, atez ateko bilketa dela argi geratu da. Atez atekoa ezarri ondoren % 30 birziklatzetik % 80ra egun batetik bestera pasatzen da. Parte hartze prozesuetatik irteten diren erabakiei, noiz emango zaie behar duten garrantzia? Adoretzu izateko ordua iritsi dela uste dugu.

Usategia musika taldeentzako izango da. Gai horrek lehenago behar zuen irtenbidea, baina berandu bada ere ondo dago. Zumaiako hainbat taldeek egoera penagarrietan lokal berdina konpartitzen zuten, hezetasun handiko lokalak (musika tresnentzako oso txarra da hori), eta tokirik gabe zeuden. Ea bada baldintza hobeez musikaz gehiago disfrutatzen duten eta emaitzak, tarteka kalean entzuteko aukera dugun.

Baratza ekologikoa martxan aurten egongo da. Beste herrietan arrakasta handia izan du, eta Zumaian ere espero dugu horrela izango dela. Errespetu pixka batekin, kalitateko barazkiak ateratzen saiatu behar gara. Jendearengan konfiantza izan behar dugu, eta bere denbora nola pasatu ez dakitenentzat entretenimendu polita da. Gainera, baratzak nola zaindu, eta baratzekin lotuta dauden gaiez ikasteko aukera ona izango da.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren emaitzak baditugu dagoeneko, eta aztertu ondoren, erabaki gogorak hartu behar dira. Azken urteotako zenbait gauza larri salatu behar dira, eta denon gustukoak ez direnak gainera. Gardentasuna aipatzerakoan urte ilun asko bizi izan ditu Udal honek, baina ez dira urte denak aztertu. Hala ere, oso larriak diren gauzen berri edukiko duzue



nos encontramos ante los últimos presupuestos del actual mandato. En fase de discusión a la fecha de hoy 18/01/2011, por lo cual esperamos que cuando salga publicada la revista municipal nº 13, estén en fase de aprobación en pleno. Siempre que se hayan dado las condiciones necesarias, a nuestro entender; de austeridad en el gasto corriente, capítulos 2 y 4, y anulación de algunos gastos de inversión cap. 6. De cara al 2011 que ni son de necesidad, y menos aun de urgencias, porque aunque se redactaran los proyectos, sería como un engaño a la ciudadanía ya que no podrían ejecutarse por falta de partidas económicas para ellos. Y, encima, si se tardan en ejecutar tendríamos que ajustar su redacción al momento de su ejecución, aumentando el gasto de forma que hoy su redacción es un gasto innecesario e inútil. Estos ejemplos y otros más dentro del proyecto de presupuesto hizo que en 2010 no fueran aprobados, por ello esperamos un acto de responsabilidad por parte de todos y en especial de la Comisión de Gobierno y el Alcalde a la cabeza para que en 2011 no tengan otra vez que ser rechazados. Esta apuesta por debatir y si fuera posible llegar a acuerdos, nos mueve la necesidad de volver a tener un ayuntamiento con economía saneada, capaz de generar remanentes positivos, sin tener que acudir a créditos bancarios y por lo tanto no tener que pagar intereses, que nos mermen la capacidad inversora y el mantenimiento del desarrollo en beneficio de todo el pueblo, tenga quien tenga a partir de Mayo la responsabilidad de gobernar el Ayuntamiento en el nuevo mandato.

En cuanto a temas que también saldrán en el mencionado nº de la revista en el mes de febrero, como los procesos de participación ciudadana, tanto en residuos como el de presupuestos participativos, nada podemos opinar puesto que a día de hoy es nula, en cuanto a desarrollo de los mismos y a las propuestas que hayan hecho los ciudadan@s en los mismos, y que puedan ser recogidas para su ejecución actual ó futura.

Abenduaren leko plenoa

1. Aurreko bilerako akta onartu zen (2010-11-08). Hala ere, zenbait datu zuzentzeko eskatu zuen Talde Mixtoak. EAJ-k ez zuen onartu.

2.Ogasuna.

2.1. Aurrekontua gauzatzeko Udal arauaren modifikazioa, ez zen onartu kontrako 8 boto jaso ostean (EAJ 4, PSE-EE 2, Aralar-Alternatiba 2). Abstentzioa (Pilar Etxabe) Alde bozkatu zuten Talde Mixtoak 3, eta EAK 1.

2.2. 2010-2013 epealdiko ekonomi eta finantza plana, ez zen onartu kontrako 8 boto jaso ostean. (EAJ 4, PSE-EE 2, Aralar-Alternatiba 2). Abstentzioa: Pilar Etxabe. Alde: Talde Mixtoa 3, eta EA 1.

2.3. Babes finantzarioen espedientea behin-behineko izaeraz ez zen onartu. (Kontra: EAJ 4, PSE-EE 2, Aralar-Alternatiba 2. Abstentzioa: Pilar Etxabe. Alde: Talde Mixtoa 3, eta EA 1).

3. Pertsonala.

3.1. 20ko 8/2010 errege lege dekretuaren aplikazioa onartu zen. (Kontra: PSE-EE 1. Abstentzioa: PSE-EE 1, Pilar Etxabe 1, Aralar-Alternatiba 2, EAJ 3. Alde: Talde Mixtoa 3, eta EA 1).

Abenduaren 30eko plenoa

1.1. Zumaiako Arraun Elkarteari ematen zaion diru laguntza zuzena handitzea onartu zen aho batez.

1.2. Zumaia Lantzenek eskatutako eraikuntza,

instalazio eta obren gaineko zergan hobaria onartzea erabaki zen sei botorekin (Talde Mixtoa 3, EA 1, Aralar 1 eta Pilar Etxabe 1). 4 abstentzio izan ziren (EAJ 3 eta PSE-EE 1).

2.- Hirigintza

2.1 2010. urterako Zumaiako ondare historiko, arkitektoniko eta ingurumeneko fatxaden birgaitze integralerako dirulaguntzen oinarrien hasierako onarpena egitea onartu zen aho batez.

2.2 07HE Ardantzabiden arau subsidiarioetako 34.3 artikulua aplikatzeko sinatutako hitzarmena aldatzeko, Zumaiako Udalari konpentsatu beharreko kalte-ordainaren ordainketaren era aldatzea onartu zen zazpi botorekin (Talde Mixtoa 3, EA 1, Aralar 1, Pilar Etxabe 1 eta PSE-EE 1). EAJ-k kontra bozkatu zuen.

3.- Euskara

3.1.- UEMAK 2010-2012 epealdirako garatutako udal barruko euskararen erabilera plana onartu zen zortzi botorekin (EAJ 2, Talde Mixtoa 3, EA 1, Aralar 1 eta Pilar Etxabe 1). PSE-EEK kontra bozkatu zuen.

3.2.- Euskararako dirulaguntzen oinarri bereziak onartu ziren zortzi botorekin (EAJ 2, Talde Mixtoa 3, EA 1, Aralar 1 eta Pilar Etxabe 1). PSE-EE abstenitu egin zen.

4.- Eskari-galderak

EAJ-k Auzobusa zerbitzuaren erabilpenaren inguruan galdegin zuen. Udal Gobernuak datuak jakinaraziko dituela azaldu zuen.

agenda otsaila febrero / martxoa marzo

Ikastaroak / Cursillos

- KZ gunea: Internet eta E-Administrazioa, ITxartela, eta 2 orduko mintegiak (Jaycut, Youtube, Skype...).
- Internet y e-administración, tarjeta IT y una charla de 2 horas (Jaycut, Youtube, Skype...).*

Deialdiak / Convocatorias

- Santelmoak antolatzeako deialdia: otsailaren 18a, ostirala, 19:00etan udaletxean.
Convocatoria para organizar los San Telmos. Día 18, viernes, a las 19:00
- Zuhaitz Eguna: Otsailaren 26an
Día de los arboles.
- Mendi Astea 2011: Martxoaren 21etik 24era, Foronda kultur etxean, Mendiko ikus-entzunezkoak (ikusi egitaraua).
Semana dedicada al montañismo.

Lehiaketak / Concursos

- Inauterietako kartel lehiaketa: epea, otsailaren 18a. Oinarriak kultur etxean. foronda@zumaia.net
Concurso de carteles de carnaval.

Otsaila / Febrero

Igandea, 20 domingo

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia Ipuinaren bila
Teatro para niños en aita Mari: 'Ipuinaren bila'

Osteguna, 24 jueves

19:00etan Foronda kultur etxean, 'Documentación Medieval del Archivo Municipal de Zumaia (1256-1520)' argitalpenaren aurkezpena
Presentación del 'Documento Medieval del Archivo Municipal de Zumaia'
21:45ean zine forum Villa Amalia
Cine Forum 'Villa Amalia'

Larunbata, 26 sábado

9:30ean, Zumaia III. Txirindulari saria.
Premio de Zu
11:30ean, Neguko piraguismoko Gipuzkoako Txapelketa.
Campeonato de Guipuzcoa de piraguismo de invierno.
16:00etan Zumaia XXVII. Herri Lasterketa. (Haurrak 16:00etan eta nagusiak 17:00etan).

Igandea 27 domingo

Familia irteera Ordiziako Delikatuz zentrora.
Salida familiar al centro Delikatuz de Ordizia.

Martxoa / Marzo

Martxoaren 4an ha sita: INAUTERIAK.
Desde el 4 de marzo, Carnavales.

Ostirala 4 viernes

Eguerdian, Beheko Plaza Abesbatzaren Kalejira Mozorrotua.
Arratsaldez herriko Ikastetxeekin Kalejira.
Kalejira del Coro Beheko Plaza, al mediodía.
A la tarde, kalejira de los alumnos de las escuelas.
17:00etan Ludotekan Inauteri Festa.
Ordu berean, Gaztegunean Mozorro Festa.
A las 17:00, fiesta de disfraces en el Gaztegun.
19:30ean Musika eskolarekin INAUTERI JAIALDIA.
Fiesta de carnaval de la Musika Eskola.
22:00etan, antzerkia: Baginaren elkarrizketak
Teatro 'Baginaren elkarrizketak'

Larunbata, 5 sábado

12:00etan Musika Bandarekin Inauteri jaialdia.
Festival de carnaval con la Banda de Musica.
18:30ean diskoteka eta Mozorro Desfile eta lehiaketak

Discoteca y desfile y concurso de disfraces.
22:30ean diskoteka.
A las 22:30, Discoteca.

Astelehena, 7 lunes

15:00etan eta 17:00etan Pirritx eta Porrotxen Inauteritako saioa: Ongi etorri Pupu eta Lore
A las 15:00 y a las 17:00 sesion de carnavales de Pirritx y Porrotx: 'Ongi etorri pupo eta Lore'.
18:00etan Ludotekan, Inauteri festa.
A las 18:00 fiesta de Carnaval en la Ludoteka.

Astearte, 8 martes

Emakumearen Nazioarteko Eguna.
Día Internacional de la Mujer.
Iluntzean Aita Marin "Nagore" Filma
A la noche, se proyectará el film 'Nagore', en la sala Aita Mari.

Osteguna, 10 jueves

21:45ean Zine Foruma, Madres e hijas
Cine Forum, 'Madres e hijas'.

Ostirala, 11 viernes

22:00etan, Aita Marin, Miren kontzertuan: Laztanten nauen eskua.
Concierto de Miren, en la sala Aita Mari: 'Laztanten nauen eskua'.

Astelehena, 21 lunes

19:30ean Mendi Astearen zikloaren hasiera.
Comienzo del ciclo 'Mendi Astea 2011'.

Osteguna, 24 jueves

21:45ean zine forum, Gainsbourg
Cine Forum, 'Gainsbourg'

Osteguna, 31 jueves

19:00etan Forondan, Nabarralde elkartearen esku, "Gipuzkoaren jatorria" dvd-aren aurkezpena.
Presentación del DVD 'Gipuzkoaren Jatorria', de la mano de la asociación Nabarralde.

GAZTEGUNEA

Kantauri 13:

Otsaila / Febrero

Asteazkena, 16 miércoles

17:00etan maskara tailerra
Taller de mascara.

Asteazkena, 23 miércoles

18:00etan Zine Forum "Matrix 2"
Cine Forum, 'Matrix 2'.

Ostirala, 25 viernes

17:00etan Zine Foruma.
Cine Forum.

Martxoa / Marzo

2, 9 eta 18an

18:30etan sukaldaritza tailerra.
Los días 2, 9 y 18 a las 18:30 taller de cocina.

Ostirala, 4 viernes

17:00etan mozorro festa Gaztegunean.
Fiesta de disfraces en el Gaztegun.

Ostirala, 25 eta Astelehena, 28 / viernes 25 y lunes 28

17:00etan Zine Forum.
Cine Forum.

